

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko abenduak 18 / II. urtea / 54. zenbakia

Aduanak, oroitzapenen altzora

Dantxarineko aduanaren desagerpenarekin mugari lotuta bizi izan diren Nafarroako aldeei aldaketa garaia heldu zaie. Komertzioak, baina baita nekazaritzak eta abeltzaintzak, eta zeharka industriak ere, eragina sumatuko dute, lanpostu eta bizimodu oso bat sortua baitzen mugen inguruan. Ibardinek, Luzaidek eta Dantxarineak sumatuko dute gehien, eta aduanak, luze gabe, oroitzapenen altzora pasako dira; ondorio guztiekin.



Irakurlearendako oharra:

Ohi den bezala, hurrengo ostiralean, hilak 25, ez da egunkaririk banatuko. Hori dela eta Nafarkaria ostegunean, Gabon Egunean aterako da. Hurrengo aleak urtarilaren 8an, ostirala, ikusiko du argia, urte berriari behar bezala atxikitzeko. Beraz, zorionak eta urte berri on!

Amen eta omen



AINGERU EPALTZA

Kanpoko haize uniformatzaileek finki inarosten gaituzte. Iruñeko denda eta karrika aunitzek egun hauetan hartu duten itxura lekuko. Ohizko apaingarrien partez, Papa Noel, Santa Klaus, San Mikolas edo dena delakoa, jaun eta jabe dugu aurten Eguberriak direla eta han eta hemen paratu diren argi eta ornaduretan. Noranahi joan eta ere, han attun kapelo-gorri bizar-zuriaren iduria. Telebistan eta are Telefonicarenen zerbitzuetan ere delako pertsonaiaren nagusitasuna ere nabari omen da aurten. Eta bada gure artean kezkatzen hasia denik, bonbardaketa horren ondorioz, bere haurrak Eguberriko opariak Olenztzero jatorrari ez baizik Papa Noel arrotzari eskatuko ote dizkion. Badakizue, Eguberriak medio, imperialismo amerikarra etxean. Luze gabe, tradizio leher edo zalaparta defendatu beharraz mintzatzen hasiko zaizkigu.

Jende gutti oroitzen da Olenztzeroari duela denbora gutti —10, 15 urte gehienez— egotzi zitzaiola hemen, opariak banatzeko eginkizuna. Lehenago trankil bizi zen mendian, txondorra piztu eta tripa bete, lana eskaski eta tragua ausarki. Hain segur ere, Eguberrietan, irri ederrak egiten zituen Hiru Erregeen bizkar, haien izerdiak ikusirik euskal haurren sukalde guzietara ailegatzeko afanetan. Gogoratuko ere ez zitzaion orduan, egun batez dekretatuko zenik Erregeen afera —euskal tradizioaren muinetaraino erroturik egon eta ere— neketan egokitzen zitzaiola euskaltzaletasun laiko eta progresista berriari.

Handik goiti hor dabile gure ikazkin mozkortia, tirriki-tarraka eta mekaguenka, gogoz bertzera hartu duen egitekoari nola edo hala buru emanez. Eta handik goiti ere, bereizketa bitxia hemengo irakas-kuntzan: Eguberri aitazinako ariketetan, ikastoletako haurrek Olenztzeroari idatzi behar diote gutuna; eskola pribatu eta publiko gehienetakoek, berriz, Erregeei.

Orain, legeen bidez erdietsi ez den baterakuntza lortzear dute zinema amerikarrak eta publizitateak. Denbora guttiren buruan, batzuek nahiz bertzeek Santa Klaus kanpotarrari eskatuko diote Nintendo, haur somaliarrek marineei txokolatea bezala. Guk 'tradizio' joanari negar eginen diogu, baina gure Olenztzero nagiak eskertuko ditu, agian, lehenagoko lasaitasunera itzuli ahal izatea.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Gure Aurreko Andrak izeneko erakusketa ikusgai egonen da Irurtzunen datorren abenduaren 23a arte. Erakusketa hau Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Lan Kide Aurrezkiak sustatutako Kultur Elkartek antolatu du eta bertan, Eulalia Abaitua Allendek egindako argazkiak dira ikusgai.

'Euskararen iraupena Nafarroako gaztelaren' izeneko erakusketa ikusgai dago Garesko udaletxearen erakusketa aretoan. Bertan, euskarak nafar herri eraldunetako gaztelaren utzi dituen aztarnak aurkezten dira, atal desberdinetan banaturik. Paneletan antolatu dute, eta panel bakoitzak gai bat agertzen du. Hilaren 27a arte iraungo du.

Artisau erakusketa ikusgai egonen da larunbat honetan, abenduak 19, Irurtzongo Eskolako Pilotalekuan, goizeko 10,30etatik eguerdiko 2,30etara bitartean. Nafarroako Gobernuaren lankidetzarekin antolatu dute erakusketa hau, Euskararen astea dela eta ikusgai egonen dena.

Argazki erakusketa ikusgai egonen da bihar goizean, abenduak 19, Garesko Udaletxean, 'Fotokulo' taldeak antolatuta.

ERRAN DUTE

Alderdiak foralismoaren aldeko apostua egingo duela uste dut.

Juan Cruz Alli
Lehendakaria

«Larra-Belagoako proiektuak itsu itsuan errespetatzen du legea».

A. Rodriguez San Vicente
Industria Sailburua

«Baztango udalaren funtzionamendua ez da batere ona».

Santiago Ustarroz
Union Baztanesako bozeramailea

«Spasic partiduko hobere-na dela ikusteak pentsarazten ditu».

Jesus Gil y Gil
Atletico de Madrilako presidentea

Baztangoia barna

Baztangoia da Baztan osatzen duten lau eskualdetako bat. Bertan Erratzu, Arizkun, Azpilkueta eta Amaiur daude. Beste eskualdeak Elizondo —Elizondo, Lekarotz eta Elbetea—, Erberia —Irurita, Gartzain, Arraiotz eta Oronotz— eta Basaburua —Ziga, Anitz, Berroeta eta Almandotz— dira.

Paraje ederrak dira hauek, baserri eta basoez inguratutik, batez ere lur komunaletan, Batango dermioaren —Nafarroako handiena— % 80. Ibilbidea Arizkundik ateratzen da, eta hortik Erratzura, pista batetik. Erratzutik Bozatera —Arizkunko auzoa—, eta hortik Amaiurrera, Landaberroa eta San Migel baselizaz zehar. Bide nabaria da, eta Urrasun eta Zuaztoi auzoak pasata, Azpilkuetara heltzen gara. Hortik, Arribiltoatik, Ikatzateko bentara, eta segituan, Arizkun. Oro har, 13 kilometrotako ibilbidea, baina patsadatsua, maldarik gabekoa.


Gorramendi eta Autza magalean, aspaldian dena estaltzen zuen hariz-

Argazkien gaia aurtengo Santiagoko jaiak aurkeztea da. Arratsaldean, berriz, eta leku berean, euskarazko tailerretan egindako lanen erakusketa egonen da.

IKASTAROAK



Fondoko eski ikastaroak egin daitezke Aralarren abenduaren 1etik martxoaren 28a bitartean, Larraungo udalak antolatutik. Ordutegia 9,30etatik 13,30etara izango da. Bi modali-



tiaren arrastroak antzemango ditugu. Sastraka gutxiak —ganadua- rendako erabiltzen da iria eta hos-

tate daude, 'Aste Zuria' eskola-koentzat, 4.800 pezetatan, eta 'Bi asteburu' helduentzat, materialik 6.700 pezetatan eta materialik gabe 4.800etan. Izena eman daiteke Lekunberriko Kirol Bulegoan.

HITZALDIA



Everest-era igoerari buruzko hitzaldia eskainiko dute gaur, abenduak 18, Ifurrategi anaiek, Etxalarko eskola zaharretan. Hi-

toak—, bertan erbiak, muxarrak, eta beste animali mota franko ezkutatzen dira.

tzaldiarekin batera filminen proiektzioa botako dute. Arratsaldeko zazpitan izango da mintzaldia, Etxalarko Euskara Batzordeak antolatutik.

Estitxu Arozena. Sebastian Lizaso, Andoni Egaña eta Mikel Mendizabal bertsolariak arituko dira igande honetan, abenduak 20, Berako Kultur Etxean. Gai jartzailea Jon Abril izango da. Bertso saioa arratsaldeko 4etan

hasiko da, Berako Euskara Batzordeak antolatutik.

MUSIKA



Balerdi Balardi musika taldea arituko da bihar, abenduak 19, Irurtzongo Kultur Etxean, Nafarroako Gobernuaren lankidetzarekin antolatutako Euskararen astearen barruan. Kontzertua gaueko 10.30etan izanen da.

Etxamendi eta Larralde Nafarroa Behereko kantariak arituko dira gaur, abenduak 18, Garesko Udaletxearen erakusketa aretoan, arratsaldeko zortzi t'erdietan, bertako Kultur Etxeak antolatu duen Euskararen Aste Kulturalaren ekitaldien barruan.

Zarama eta Minxoriak musika taldeak arituko dira gaur, abenduak 18, Burlatako Hilarion Eslava II Eskoletako frontoian, EUSKALDUNON EGUNKARIAK antolatutik. Kontzertua gaueko 12etan hasiko da Zaramarekin, eta ondoren Minxoriak taldearekin gaupasa egongo da. Sarrerak 600 pezetan salduko dira.

Barricada taldeak kontzertua eskainiko du bihar, abenduak 19, Anaitasuna polikiroldegian. Musika emanaldia gaueko 9etan hasiko da eta sarrerak 2.000 pezetatan saltzen dituzte.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, 30 **seme-alaba Nafarroako**. Elkarriketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2


Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

Iñaki Perurena



Harrijasotzailea

Alfredo Sada



Eskultorea

Roman Kosecki



Aurrelaria

Leitzako kirolari handiak ez lomen du oraindik gogoia eta indarra galdu, nahiz eta garai luze batez Saralegi bere herikideari protagonismoa utzia zion iruditu. Iñaki 316 kilotan gelditu zen, gelditu ere, eta hor hasi zen Migeltxoren gorakada. Orain, biek berriro ekingo diote marka eta saioei, udako erakustaldiak pasa eta gero. Iñakik utzi ditu kiloak, eta 206 kiloko harriarekin errekorra gainditzeko saiatuko da. Migeltxok, bere aldetik, pausoz pauso egindako bere bideari darraikio, bere maisua bezala, eta 313ko harriarekin saiatuko da. Bikote ederra suertatu zaigu.

Faltzesko eskultorea zenari omenaldia egin zion atzo, osteguna, Nafar Ateneoak Iruñean, bere heriotzatik hiru hilabete betetzean. Bertan Pedro Salaberri eskultoreak, Maria Jose Moreno keramistak eta Agustin Illarregi argazkilariak hartu zuten parte. Alfredo Sada azken urteotako artistarik garrantzitsuenak izan zen Nafarroan, eta 1989an Madrilera Arte Ederretako Elkartek Estatu Espainoleko artista gazte azpimarragarrien artean aukeratu zuen. Iaz Valladolideko saria jaso zuen, eta Juan March fundazioak bere lan bat erosi zuen. Burmuin minbiziak jota hil zen.

Urbanek gustokoa zuela zioen, eta poloniarrak eragin handia du Osasunan, bera baita kritikak egitera ausartzen den bakarretakoa. Orduan, bere ondoan lan handia egingo zuela esan zuenean, Ezkurak telefonoa hartu eta aurrelari txikia eskuratzen ahalegindu zen. Haste hastetik zaletu gorritxoek maite duten horietarikoa zela antzeman zen: azkarra, borrokalaria, xumea... baina ez zuen golik sartzen. Atletico Madriden aurka, baina, denetarik egin zuen, eta baita gola sartu ere. Tamalez, talde handiekin jokatzeke bere nahia azaldu zuen ondoren. Inor ez da perfektoa.

Batzan

A. UNANUE / ELIZONDO

Etzi bailarako hamabost herrietako alkate edo juradoak aukeratu dituzte baztandarrek. Hautaketa, tradizioak agintzen duenez, Eguberri aitzoneko igandean eta bi urtetik behin egiten da.

Eta badirudi, hau ere tradizioari eusteagatik edo, aurtengo goz kontra aukeratuak alkateak borondatez aurkeztutakoak baino gehiago izango direla. Baztango herrietan alkatea izatea ez da inoren ametsa; orain arte alkate izan direnei entzutea besterik ez dago.

Gehien gehienek ez dute beren burua berriz aurkeztuko. «Duela bi urte ere ez nintzen aurkeztu, baina aukeratu ninduten... ze erremedio», dio Rosa Maria Irungarai Elbeteko alkateak. «Aspertu naiz», esan digu Azpilkuetako Pedro Miguel Barreneiteak.

Antzera hitz egin du Manuel Irigoien Erratzuko alkateak: «Badakizu zer den, aunitz denbora kentzea zeure lanetik eta konpentsazioak, batere ez». Elizondoko Pedro Mari Esartek ere ez du esperientzia errepikatzen gogorik: «Oso neketsua da. Ez zara alkatea, idazkaria, alguazila eta bestetako batzordeko burua baizik. Dena batean».

Gehiegizko ardua da herrietako alkateen ohizko kexa. Izan ere, eskumen eta bitarteko gutxi izan arren, auzokoen beharrak eta eskaerak bideratu behar izaten dituzte. Soldatarik gabe eta esker gutxiarekin, gainera. Hala ere, denek ez dute hain ikuspegi goibela. Arraiozko Jose Antonio Bergarak dioenez, «ni gustura egon naiz, inolako problemarik gabe, eta berriz aurkezteko prest na-



Erratzuko juradoaren hautaketa, 1988. urteko abenduaren 19an.

Alkateen hautaketa igandean

go». Bejondizula ba! gutxienetakoa zara eta.

HAUTAGAIEN IZENAK IGANDEAN

Usadioa denez, hautagaien izenak ez dira eza-gutuko azken unera arte, ziurrenik igande goizean herriz herri egingo diren batzarrak burutu arte. Hautestontziak goizeko 9etatik arratsaldeko 5ak bitartera egongo dira zabalik. Duela bi urteko hauteskundeetan 3.023 boto besterik ez ziren jaso. Hots, baztandarren erdiak ere ez zuela

parte hartu alkateen aukeraketan.

Azken hauteskundeetan ere nabarmena izan zen abertzaleen gorakada, horietxe eskuratu baitzituzten alkatetza gehienak. Horrela, abertzale giroko alkateak nagusitu ziren zortzi herrietan, Elizondo barne. Gainontze-koetan, berriz, Union Baztanesa inguruko hautagaiek jaso zuten boto gehien.

Bestalde, Batzar Nagusia berri-ritu egingo da, herrietako alkateak batzarkideak baitira. Jakina denez, 15 alkateek, bailarako al-

kate eta 12 zinegotziek eta lau eskualdeetako —Baztangoia, Elizondo, Herberia eta Basaburua— ordezkari banak osatzen dute Batzar Nagusia.

Behin alkate berriak nortzuk izango diren jakinda, urtarilaren 6an egingo diren batzarretan jabetuko dira karguaz. Gero, alkateak libre dira beren laguntzaile edo kargudunak izendatzeko. Batzarrean, halaber, kargua uzten duten alkateek azken jardunaldiko kontuak azaldu beharko dituzte.



TUTERAko Udalak Mugarik Gabe, Gobernu Kanpoko Era-kundeari 1.500.000 pezeta ematea onartu zuen astelehenean. Dirulaguntza hori Larreinaga-Malpaisillo Nikaraguako herrian eritxe bat eraikitzeke erabiliko du Mugarik Gabe taldeak.

IRURTZUNgo herriak erantzun ezin hobe eman dio bertako Kultur Elkartek antolatu duen Euskararen Asteari. Zuk ere parte hartu nahi baduzu, garaiz zabiltza: gaur gauean herri afaria egingo dute Iratxo elkarteak, bihar Balerdi Balerdi taldeak joko du Kultur Etxean eta etzi, amaitzeko, artisauen erakusketa jarriko dute eskolako pilotalekuan.

LIZARRAn zaborra bereizteko edukinontziak paratuko ditu astelehenean aurrera. Horrela, zabor organikoa jasotzeko 140 edukinontzi berde jarriko dituzte, 25 papera biltzeko eta beste horrenbeste beirarentzat. Gaur egungo 220 edukinontziak, berriz, gainontzeko zaborra jasotzeko erabiliko dira.

LESAKAko ikasleek Santiago Irigoien txistularia omendu zuten iragan igandean. Hamabi urterekin hasi zen Santiago udal txistulari bezala eta azken hogeitertean ehun ikasletik gora izan ditu. Ikasle horietatik arduratu ziren igandean txistulariak, laugarrenez, bere merezimenduen pareko omenaldia izan zezan.



KORELLAko kale izan frankisten aldaketa eragotzi egin zuen UPNk pasa den astelehenean. Sozialistek General Franco, General Mola, Jose Antonio, Victor Pradera eta Calvo Sotelo kaleen izena aldatzea proposatu zuten. Eskaera ezerezean gelditu zen, ordea, UPNko zazpi zinegotziek kontrako botoa eman baitzuten.

Jose Luis Romano sozialisten eldunaren ustez, aipatutako izenek «gertaera mingarriak dakartzate gogora». Hori dela eta, «aldendu beharrean batu egingo gaituzten» izenak eskatu zituen. Matias Jimenez UPNko alkatearen iritziz, berriz, izen aldaketa ez da komenigarria, «polemika zaharrak pizteak ez baitio inori mesederik egiten». Era berean, historia idatzita dagoela eta kale horien izenak historiaren parte direla gehitu zuen alkateak astelehenean osoko bilkuran. Sozialistek erantzun zuten, UPNkoen jarrera lekuz eta denboraz kanpo dago eta beren eskaerari eutsiko diote. Bestalde, Aizpuren—alderdikideak Europako bandera jartzearen alde agertu ziren, «bigarren mailako hiritar europarra izatea ez delako pozteko modukoa».



Pedro Mari Esartek juradoen alde egin du apustua. A. BARANDIARAN

Baztango Udal ere urrats hori emateko prest azaldu da. Arautegiaren aldaketak noraino iritsi behar duen erabakitzea zailagoa da, ordea. Horrela, Santiago Ustarroz Union Baztaneko burua ordenantzen funtsa aldatzearen kontra agertu da. «Ttipi-ttapa» aldizkariari esan dionez, «aldaketa txikiren batzuk sartzen ahal dira, baina funtsean ez naiz aldaketak

sartzearen aldekoa. Gainera, udalarenak diren konpetentziak emanez gero, bigarren udal bat sortuko zen eta, orduan, gestio municipalak izugarri mantsotuko zen». Ustarroren iritzia, Batzar Nagusiak orain arte bezala segitu beharko luke: «Batzarrak beti egon beharko du, aiantamentua, jurado, juntero eta kargodunekin, betitik horrela izan baita».

Arautegia aldatu nahian

A.U. / ELIZONDO

Aspaldidanik ari dira Baztanen bailarako arautegia edo ordenantzak aldatu nahian. Horretarako lehen bilera pasa den asteartean egin zuten Elizondon. Bertan izan zen Urzainki abokatua, aldaketaz arduratuko dena, herrietako alkateak, Patxi Oiarzabal (EA) Baztango alkatea eta bailarako zinegotziak.

Bileran ezer gutxi aurreratu zen. Herrietako alkateen hautaketa gainean dagoela eta, egin beharreko aldaketak alkate berriekin hitz egin beharko direla erabaki zuten bildutakoek. Oraingoan, Urzainkik inkesta bat prestatuko du alkateen iritzia jasotzeko eta aitzinago ikusiko da aldaketaren nondik norakoa.

Gaur egungo ordenantzak 1967. urtekoak dira eta horiek indarrean sartu zirenetik Batzar Nagusiak indar asko galdu du, bailarako Udalaren alde. Pedro Mari Esarte Elizondoko alkatearen ustez,

Ordenantzen aldaketarekin indar handiagoa eman nahi diete herrietako batzarrei eta bailako Batzar Nagusiari, azken urteotan garai bateko eskumenak galdu egin baitituzte.

«oraingo egoerak ez du zentzu handirik. Bailarako lurren hiru laurdenak komunalak izan arren, ez dago bailara osoko garapenaz arduratzeko erakunderik. Baztango Udalak gero eta eskumen gehiago hartu ditu bere gain eta, joera horrek segituz gero, herriek ez dute deusetarako ahalmenik izango». Iritzi berdinekoa azaldu da Kiko Gartxitorena. Berroetako alkateak kargua utziko du laster, baina komenigarria iruditzen zaio herrietako batzarrak eta Batzar Nagusia indarberitzea.

Hamalau egun barru Europa osoan zehar aduanarik gabeko ibilaldia egin ahal izango da, Europako Agiri Bakunaren arabera. Horrek herrialde guztietan zehar dauden mugen desagerpen ofiziala ekarriko du, eta Euskal Herrian lehen-dabizikoa Dantxarinear (Urdazubi) izan zen joan den astean. Nafarroak bi aduana ditu, Luzaiden eta Dantxarinear bertan, eta muga desagertzeak eragin zuzena izango du biherri hauetan, mugari lotutako bizi-modua osatu baitute urteetan zehar. Baina horretaz gain, oso alde zabal batean, Leitzarandik Erronkariraino, eragina —zuzena baztuetan, ez zuzena bes-teetan— sumatuko da. Garrantzitsuena, komertzioan eta lehen arloan izango dena. Donostiako Ikerketarako Euskal Institutuak (IKEI) Nafarroako Gobernuaren enkarguz egin berri duen azterketan aztertzen da sako mugen desagerpenaren eragina.



Dantxarinear zegoen bandera frantziarra kentzen, hilaren zazpian.

JUAN MARI ONDIKOL

Mugei adio

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Dantxarinear izan zen lehendabizikoa pausoa. Ainhua eta Urdazubi bitartean, astelehen euriatsu batean muga igarotzean —hainbeste urteetan bezala— atek zabalik topatzea harriduraz hartu zuten askok, pozez baztuek. Amaitu ziren zamari eta gau laneko garaiak, eta horrekin batera pasadizo eta bitxikerien kronika luze eta oparoa. Orain hasiko dira, baina, horren inguruan bizi izan diren askorendako komeriak.

Nafarroak bi aduana dauka Ipar Euskal Herrian —Dantxarinea eta Luzaide— eta zazpi postu —Ibardin, Lizuniaga, Etxalar, Erratzu (Izpegi), Eugi (Alduides), Otsagabia (Larrau) eta Iza-ba (San Martin Harria)—, baina azken hauetan ez da kontrolik egiten, Beran eta Eugi izan ezik. IKEIren azterketak Bortziriar, Erroibar, Doneztebe, Aezkoa, Baztan, Zaraitzu, Leizaran, Erronkari eta Esteribarreko aldeak hartzen ditu baruan, eta mugen desagerpenak toki oro eragingo badu ere, bereziki Ibardin, Dantxarinea eta Luzaidek sumatuko dute, bizimodua mugari lotua zuten aldeek, hain zuzen ere.

IBARDIN-EN KALTE LARRIAK 1993ko urtarillaren lehen zatia, teoriatik, Europako lurraldeen arteko komertzioak ez du mugarik pasa behar, berez, barruko komertzioa izango baita aurrerantzean. Honek zuzen ukitutako mugan dauden herrietako arlo komertziala. Dantxarinear

eta Luzaiden aduanetatik Nafarroako komertzioaren % 3 igarotzen da, eta gainontzeko guztia Imarkoan eta aduana pribatuak —Seat enpresakoak nagusiki— biltzen dute. Horrela, aduanetako administrazioarekin lotuta dauden 50 bat lanpostu finko desagertuko dira bertan, baina eragina askoz ere garrantzitsuagoa izango da herri haue-tako komertzioan, eta bereziki Ibardin (Bera).

Larrunen magalean, kostalde-rra begira, 300 bat langile finko —udan beste 200— jarduten dute 60 dendek osatzen duten kontsumoari momentu txiki honetan. Salmentaren % 50 al-kohola da, eta bi aldeetako pre-zioak parekatu direla kontuan harturik, bisitari eta salmentek behera egingo dutela iragarri daiteke.

Batez ere bi hauek —aduanak eta komertzioa— nabaritu-ko lukete eragina, baina horretaz gain, muga desagertzean etorriko di-ren arau eta aldaketak guztiek egoera berria sortuko dute gaine-

Lehen arloa izan-go da kaltetueneta-koa eta oraingo azien-den tamaina txikia dela eta, pata-ta eta esne behietar-ako azien-da gehie-nak desagertu egin-go dira, IKEIren az-terketaren arabera.

rako arlo guztietan.


IKEIren azterketaren arabera, lehen arloa izango da kaltetueneta, oraingo azien-den tamaina txikia eta antolakuntza eskasak direla eta. Horrela, patata eta esne behietarako azien-da gehienek desagertzeko bidea hartu behar-ko dute, baina etorkizun ona izango dute ardikiak, azien-da errentagarrien portzentaia inon baino handiagoa baita —% 10ek berrehun ardi baino gehiago—.

Industri arloak ez du eragin zuzena sumatuko mugen desagerpenarekin, baina aipatzekoa da alde honetako hiru enpresak —Lesakako Laminaciones, Sarrio eta Magnesitas— bertan du-ten nagusitasuna. Hiruren etorki-zuna ez dago oso garbi azken ur-teetan suertatu diren erabakiak direla eta.

BORTZIRIETAN ERAGIN ZUZENA Lurraldekako azterketa garbi-uzten ditu zeintzu izango diren eskualderik kaltetuenak. Leitzaranez aurr-i-kuspen oso baikorrak dauka, al-de batetik mugen desagerpenak ez duelako eragin zuzenik izan-go, eta Sarrio enpresaren etorki-zuna nahiko ona delako. Bortzi-rietan, ordea, oso ezkorak dira, Ibardin, Lesakako Laminaciones eta lehen arloaren egoera larria dela eta. Baztanen, «ezinbeste-kotzat» jotzen du azterketak Dantxarinea eta lehen arloa bir-moldatu beharra, eta Aezkoa, Za-raitzu eta Erronkarin oso egoera iluna iragartzen du. Javier Larraia txostenaren egi-letako baten arabera, ordea, ber-

tan zenbait aterabide garbi antze-maten dira, eta ez du uste lana negatiboa denik. «Arazo argi eta garbiak azaldu zaizkigu, baina aprobeztatu beharreko zenbait

Azken urteotan behera-kadan murgilduta zeu-den jadanik Dantxarinea eta Luzaiden aduanak, koadroan ikus daitekeen bezala. Imarkoan eta aduana pribatuak —Seat enpresakoak nagusiki— euren gaitasuna zuten egite-koak, baina azpimarra-tzekoa da Dantxarinear izan duen gorakada —tipia baina— inpor-tazioetan. Kopuru urriak, dena dela.



aukera ere hor daude: turismoa, ostalaritza...».

Larraien ustetan, azpiegitu-ran aurki daitezke arazo larrienak egoerari aurre egiteko. «Aldea ez da batera dinamiko» azaldu du IKEIkoak, «eta izugarriko ara-zoak dituzte jendeak alde egiten du eta. Bertan gelditzea funtsez-koa litzateke, eta ongi egiten ba-

Ingurua ez da ba-tere dinamiko eta jendeak alde egiten du. Bertan gelditzea funtsezkoa litzateke, eta gauzak ondo egi-ten badira, badago aukera turismoari eta ostalaritzari bul-tzada emateko».

da, badago aukera garbia turis-moa eta ostalaritzan bultzada emateko. Gainera, populazio txi-kia izanda, plangintzek ere txi-kiak behar dute izan, ez da izuga-rrizko proiekturik behar».

Nafarroako Gobernuari eman zaion txostenean aipatzen ez ba-da ere, mugaz bestaldean dagoen egoera Nafarroakoa baino hobea dela uste du Larraiak, «askoz ere garatuagoa baitago».

Gainera, geografikoki alde honek baina erraztasun handi-goak eskaintzen ditu, eta popu-lazioa ere garrantzitsuagoa da. Bertan badute jendea erakartze-ko ahalmena».

Luzaide, Dantxarinea eta Ibardin

A.B. / IRUÑEA

Luzaide da mugen eraginaren adibide ezin garbiagoa. Iruñetik 64 kilometroira, betidanik mugaz bestaldera begira egon den herria, bortizki somatuko du desa-gerpena, batez ere birmoldake-tari aurre egiteko populazioak eta azpiegiturak duten ahulezia dela eta.

586 biztanle dituen herri hau, izan ere, Nafarroa Beherea da geografikoki, eta horrek muga-ren inguruko ekonomia sortzeko parada eman zion aspaldian. Hainbeste, ezen populazioaren % 47k zerbitzu arloan egiten duela lan, eta % 43k nekazaritza eta abeltzaintza.

Baina azken arlo honetatik sortzen diren etekinak ez dira nahikoa ekonomiarik eusteko, azien-dak ez baitira, inondik ino-fa, errentagarriak, eta Gobernu-ko subentzioei esker bizi dira, nola edo hala.

Komertzioa da, beraz, Luzai-deko jarduerak garrantzitsuena, eta bestaldeko bezeroak ditu oi-narria, mugaz bi aldeetan dauden prezioen desberdintasunak aprobeztatzeko. Mugaren desa-gerpenarekin etorkizuna latza, beraz, desberdintasun horiek ere desagertuko baitira. Aterabide bakarra, IKEIren azterketaren arabera, turismoa da, baina aipa-tzekoa da bazterketa geografi-



Zonaldeko herri batzuen bizimodua aldatuko da mugen desagerpenarekin.

koak herriarengan duen eragin txarra.

DANTXARINEAN BISITARIAK NAGUSI Urdazubin dagoen Dantxarinear mugen komertzio aldetik Luzai-dekoa baino franko txikiagoa da, baina nagusi da Nafarroan bis-i-tarien kopuruari dagokionez. Izan ere, bertatik sartu ziren bis-i-tarien % 58. Komertzioa, beraz, ia erabat dago bestaldera begira.

Hainbeste, ezen Urdazubiko biztanleek ere ez dutela bertan erosten, Ainhua, Baztan edo Iruñean baizik. Horregatik, oso ahula da mugan gerta daitekeen edozein aldatetaren aurrean, eta denden artean elkartzeko ohitu-riak ezak eta merkatu alternati-boaren faltak zaildu egiten dute oso birmoldaketa.

Hala ere, azpimarragarria da egoera zailak ez duela berebiziko kezkarik sortu bertakoengan, eta garai zailak aurre egiteko nahia eta konfidantza antzematen da haiengan. Nolanahi ere, eragina zuzena izango da, eta Dantxari-nean dauden 16 benteatiko 90 lan-gileek gorriak ikusiko dituzte epe ertain batean.

Egoera larria izanda ere, Dantxa-rineko dendarien ar-tean ez da berebiziko kezkarik sumatzen, eta baikor dira etor-kizunari dagokionez, garai zailari aurre egiteko konfidantza balute bezala.

Abeltzaintzaren arloan aritzen da populazioaren % 42. Hala ere, eta inguru horretan ohi ez den bezala, hemengo azien-dak, za-balak eta profesionalak, errenta-garriak izan daitezke, IKEIren azterketaren arabera. Eragin zu-zena ere izango du nekazaritzak. Aurrikuspenen arabera, azien-da franko utzi behar izango dute.

Turismoa da, hemen ere, ate-rabidea. Mugen desagerpenak, kasu honetan, onuragarria izango da ingururako kostaldetik oso gertu baitago, eta Europa osoan hain arrakasta handia lortzen ari den landa turismoa aipatzen da aterabide gisa.

IBARDINEK ATERABIDE ZAILA Ibardineko denden jarduerak 1960-80an hasi zen, euskal kostaldearen turis-moaren gorakadarekin batera.

Egun bat mugan

Teilatuko itokinek konponbide zaila dute Luzaiden, eta goizeko hamaiketakorain ohituta dagoenak ez du Manezaundi edo Fernando Arretxeren jaioterria gustuko izango. Halaber, Donibane Garazin berandutuz gero, buelta ederra eman behar du luzaidetarako bere herria itzultzeko, jandarmak bertan gau osoa egonda ere.

Mugak sortu dituen desoreka eta zentzugabekeriaren adibide baino ez dira honako hauek, mugan bizi direnek egun oro jasaten dutenak. Izan ere, Luzaidera ezin dira 8 kilometro eskasera dagoen Donibane Garazitik teila edota adreilurik ekarri, eta ogia eguneroko ekarri beharrik eguerdian arte atzeratzen du banaketa. Halaber, muga 24 orduz dago irekita Nafarroa Behereko aldean, baina gauez itxi egiten du berea Espainiako Polizia.

Halaber, Iruñea eta Luzaide bitarteko ibilbidea astean bitan egiten du La Montañesa enpresak, eta Frantziako Gizarte Segurantzaren zerbitzuak erabiltzen dituzte luzaidetarako.

Mugak desagertzea, kasu hauetan, onuragarria izango da, Donibane Garazitik baititu, izan ere, ahalmenak orain arte Iruñetik betetzen ziren zerbitzuak aurrera eramateko. Horren lekuko astean bitan bertatik Luzaidera bidaltzen den autobusa igerilekuetara joateko, edota za-bortegia eraikitzeko emandako laguntza.

Gazteendako Zokoa

Mokokerra

Loxia curvirostra
Izeidiak gustukoak
Pirinioetako ibarretan
Gorrixka eta berdexka



Txori inbasorea

Txori bitxia bere ohiturak eta mokoa dela eta. Okerra, jakina. Oso ugariak dira Siberiako taigan, izeidietan eta pinaburua oparoa denean, mokokerrak franko ugaltzen dira. Hurrengo urtekoa, ordea, urria baldin bada, horietariko asko beste lurralde batzuetara zabaltzen dira, eta benetako inbasioak sortu. Hala ere, bertan ez dira ugaltzen, eta gutxinaka desagertzen dira. Inbasioak, beraz, tarteka izaten dira, eta Nafarroan 1956an izan zen gogorrenetakoa.

Horregatik, mota guztietako parajetan aurkitu daiteke mokokerra. Txolarrea baino handixeagoa, sendoagoa, mokoa oso bitxia dauka. Puntak ez dira paretzatzen, eta okerrak dira. Hau da, ez du ongi ixten. Honen bidez ederki irekitzen ditu pinaburuak, pinaziak jateko. Arrak kolore gorrixka dauka, baina berdexka ere izan daiteke. Emea berdea eta horia izaten da.

Nafarroan duen zabalpena oso irregularra da, eta urtetik urtera aldatzen da. Hala ere, Pirinioetako ibarretan talde iraunkorra dago, eta Leireko mendizerratik Larraraino aurkitu daiteke.

ALEJANDRA CORTES

Gaur egun, ingurugiroaren inguruan dabilen jendearen artean, eztabaida ugari agertzen zaizkigu klimaren aldaketa dela eta. Amazonas oihanaren desertizaioa, berotegi efektua, basoetako suteak, ozono geruzako zuloa... eta beste arazo asko direla medio.

Hainbat eta hainbat arazo eta ondorio dira, ezingo genituzkeela denak bildu eta azaldu, liburu batean egingo ez bagenu. Horregatik, oraingoan, arazo hauek sorturiko ondorio batetaz ariko natzaizue. Desertizazioaz, hain zuzen ere. Eta honen adibide gisa, Aral itsasoaz mintzatu naiz.

Hasteko, ondoko grafikoan ikusten duzun kokapena dauka itsaso honen. 1960. urtetik hona, bere azalera

66.000 kilometro karratutik 22.000ra jeitsi da, eta sakonean 13 metro galdu ditu. Aldaketa honen

Aral inguruan lau milioi biztanle bizi dira. Eta aldaketa ekologiko izugarri hauengatik, umeen hilkortasun kopurua % 10 baino gehiago igo da.

ondorioak ondoren azaltzen dizkizuedanak lirateke.

Lehendabiziz, han bizi ziren es-

turoiak, arrainak, kaioak, basurdeak... joanak dira dagoeneko, eta hori egiterakoan, han gelditzen ziren hegaztiak ere ez dira orain agertzen.


Eguratsera urtero 65 milioi tona harea eta gatz pozointsu igotzen dira. Hodei hauek, gero, distantzia handietara aldentu daitezke.

Eta hirugarrenez, aurreko bien ondorioa, Aral inguruan lau milioi biztanle bizi dira. Aldaketa ekologiko izugarri honengatik umeen hilkortasun kopurua % 10ean igo da.

Eta guzti hori, zergatik? Ez al duzue hau galdetzen? Beno, ba, Aralen hiltzen diren ibai garrantzitsuenak, hots, Amur Daria eta Syr Daria, Uzbekistaneko agintariek kotoi uzta handitzeko asmotan gelditu egin zituztelako.


Ez al da tamalgarria?

DESERTIZAZIO PROZESUA



I.MARTIARENA

Ingurugiroa



BASAJAUN

Aurretik behin edo behin hitz egin izan dizugu uraz. Baina azkenaldian arazoa planteatu besterik ez dugunez egin, irtenbideak proposatzeko garaia heldu dela uste dugu. Hori dela eta, zuk egin dezakezunaz ariko gara gaur, zein jokabide izan behar duzun sakontasunez aztertuz.

Lehenik, ura modu egokian erabiltzea erakunde ofizialen betebeharra da, beraiek, ura aurrezteko neurri apalekin, arazoizko kontsumoa bultzatu behar baitute. Neurri hauek jende arruntari eta industria handiari zuzenduta leudeke eta aurrerapauso inportantea ekarriko lukete arlo honetan. Era berean, banaketa sareetan baimenduta dauden ur galeren % 20 murriztu beharko litzukete.

Zenbait aditu eta talde ekologistaren ustez, uraren kontsumo librea debekatzea eta neurgailuak paratzea komenigarria izango litzateke. Horrela askoz ere gehiago estimatuko genuke egunero erabiltzen dugun ura.

Dena den, luzaroan uraz baliatu ahal izateko zeure jokabidea da funtsezkoena. Ahalik eta ur gutxienean erabil ezazu komunean —depositoan hondarrez betetako botelak sartuz lor dezakezu, modu horretan ur gutxiago sartuko baita—. Era berean, garbigailuak guztiz beteta daudenean bakarrik erabil itzazu. Erabilitako ura, produktu kimikorik ez badu, lorategian berrerabili dezakezu landareak urreztatzeko. Beste aholku bat: autoa hilean behin bakarrik garbitu.

Jenero Xumekoak

Klaus Kinski Aranoko neskaz oroitzuz

Edozein herriko jaietan, bazkalondoa, 'tiro al plato' delako hori antolatu egiten zen. Zinkezko ugerturiko txapa baten pean jartzen zen platerrak jaurtitzeko makina. Gustora emango niekeen nire bihotza, tiro batez milaka zatitan hauts zezaten, ibintze batean barreiatu, tiroek erotutako zakurrek balizko eperrak aurkitzen zituztelarik.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Behokotaula osatu ondoren Nafarroako esaera zahar bat ageriko zaizu.

1. Aldendua
2. Laborantza tresna
3. Musika soinua
4. Kuttun
5. Golkoko zorrotxo

B 9	B 12	B 5	D 2	A 4	D 10
B 6	A 8	D 7	D 1	A 10	B 2
A 5	A 11	D 6	B 1	A 6	B 4
A 2	A 3	A 11	B 7	D 3	D 4
A 7	D 8	B 8	A 12	D 9	A 1

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
A											
B											
D											

N-56

Zaharrak berri

Mukua darion sudurra ez da lotsa.

Sudurra garbitzen ez duenak lotsa gutxi.

Erroibar

Bost urteko mutiko batek hiru urteko beste bati:

—Kondoi bat aurkitu diat belarran.

—Belarra? Zer da belarra?

Bizi Bizian

Martin Azpilikueta barasoaindarraren jaiotzaren bostgarren mendeaurrena beteko da aurten. XVI. mendeko teologo eta jurista nafarra, garaiko elizgizonen pentsamenduaren arautzaile, eta errege eta aita santuen aholkularia izan zen. Ospea badu ere, egun ezezaguna bezain ezaguna omen da, bere obra ez baita behar bezain sakon aztertu. Lan horrek eragin zuzena eduki zuen XVI. mendeko gizartearen garapenean.

Martin Azpilikueta jakitun ezaguna bezain ezezaguna

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Martin Azpilikueta Barasoaingo jakituna «ezaguna bezain ezezaguna dugu» Javier Fortun Nafarroako Ikasketa Historikoen Elkartearen ustez. Nafar honen ospea handia bada ere, bere lana ez omen da behar bezain sakon aztertu, eta horren ondorioz obraren garrantzia ez da behar bezain ezaguna. «Bere idazkiak korapilatsuak dira oso, eta erabiltzen duen latina, behe eskolastikako oharxoak betetakoa da. Horrek nolabait azterketa sakona oztopatzen du, eta horregatik ez da ezaguna bere idazkien garrantzia».

Historialariaren ustez, hiru dira Martin Azpilikuetaaren garrantzi historikoa ulertu ahal izateko kontuan hartu beharreko gauzak. «Lehen bere testuiguru historikoa, bigarrena teologia moralaren arloan eginiko lanak eta hirugarrena zuzenbidean eginikoak. Hiru arloetan sakondu beharra dago bere bizitza eta obraren garrantzia ezagutu ahal izateko».

MUNDU ZAIL ETA KORAPILATSUETAN Fortunek dioenez, garai hartako gizartearen ezaugarriak kontuan hartuz, errazago uler daiteke nafar jakitunaren obra, eta bere lanen azterketa sakonagoa egin daiteke. «Berpizkun-

dearen Europar bizi zen Martin Azpilikueta, erreforma protestantearen eta erreforma katolikoaren garaian. Mundu zail eta korapilatsu horretan, lan izugarria egin zuen Barasoaingo jakitunak». Javier Fortun hitzetan, Barasoaingo teologoaren lanek garaiko gizartearen eragin zuzena izan zuten «ez berak pertsonalki lortu zuen ospeagatik, baizik eta garaiko elizgizonen garapen ideologikoan lagundu zuelako».

Garai hartan elizak zuen boterea kontuan hartuta, Martin Azpilikuetaaren lanek gizarte osoaren garapenean eragina izan zutela dio Fortunek. Teologi lan hauen garrantzia arautzean datzala dio Fortunek. «Lan horiek garaiko pentsamendu teologikoa sistematizatu egin zuten, eta modu horretan pentsamenduaren garapena erraztu».

ZUZENBIDEAN ADITU OSPETSUA Jakina denez, zuzenbidean ere aditua izan zen XVI. mendeko nafar jakitunak, eta lan anitz egin zituen arlo honetan. Fortunek ustez, «zuzenbide lanen artean azpimarragarria irakaskuntzan egin zuen lana da, abokatu moduan egin zuena ahaztu gabe». Martin Azpilikueta Toledoko artzapezpikua zen Bartolome Karrantzakoaren defentsa egin zuen Inkisizioak bere kontra eginiko epaiketan. Irabazterik ez zuen izan, eta Bartolome Karrantzako

Toledoko elizatik alde egin behar izan zuen, baina Martin Azpilikueta epaiketa hamazazpi urtez luzatzea lortu zuen, eta maisutasunez kolokan jarri zituen Inkisizioaren argudioak.

Epaiketa bere zuzenbide lanen

artearen ezaunena da, baina Fortunek, beste hainbat lan garrantzitsu egin zituela azpimarratu du. «Martin Azpilikueta pertsonaia historiko garrantzitsuen aholkularia izan zen, hala nola, Portugaleko erregea, eta Erro-

mako aita santu hirukote batena, Pio V, Gregorio XIII eta Sixto V.ak osatzen zuten hirukotearena hain zuzen ere». Hiru aita santu hauek 1562ko Trentoko Kontzilioaren ezartzearen bultzatzaileak izan ziren.

Teologo eta legegizon handia

J.K.L. / IRUNEA

Martin Azpilikueta Jauregizar 1492ko abenduaren 13an jaio zen Barasoaingo Jauregizarrean, Nafarroako historiaren garairik istilutsuenetakoa. Gazte-gaztetik izugarritzko dohaina erakutsi zuen ikasketetarako eta 16 urte zituela filosofia eta teologia ikasketak burutu zituen Alcalako (Espainia) Unibertsitatean. Ondoren Toulouseran (Frantzia) joan zen zuzenbide ikasketak egitera, eta bertan apaiz egin zen. 1524ean Salamancara heldu zen, eta hor hasi zen bere fama eta ospea, batez ere Bartolome Karrantzakoaren alde egindako de-

fentsan.

Artzapezpiku honi botere guztiak kendu zizkion Inkisizioak, eta 17 urte iraun zuen epaiketan, barasoindarra Espainian garai hartan zegoen boterearen aurka aritu zen gogoz. Horren eraginez Valladolidera lehendabiziz eta Erromara ondoren joan behar izan zuen, 1567an, eta bertan hil zen 94 urte zituela.

Aditu guztiek Frantzisko Vitoriakoaren parean jartzen dute, eta berari buruz famatu egin den honako hau esan zuen Beyerlinckek: «Teologo guztien artean legegizonik handiena, eta legegizon guztien artean teologorik handiena».

Berpizkunde garaiko Nafarroako intelektual handiena da Martin Azpilikueta, 'Nafarro Dokto-rea', eta Euskal Herriak eman duen pertsonaia garrantzitsuenetakoa. JOXE LACALLE



Barasoainen, bere jaioterrian, eskultura inauguratu zuten igandean.

JOXE LACALLE

Fernando Bidegain

Idazlea

«Nafarroan ez da sorginik izan»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

EGUNKARIA.— Orain arte argitaratu dituzun liburuak beti alde ezkutukoei buruzkoak dira, ilunak.

FERNANDO BIDEGAIN.— Bai, denak bazterreko gaiak dira. Nire ustetan, historiaren benetako ildoa historia xumea da, jende arruntena. Errege-erreginen izenek, guda nagusiek, ez dute esanahi handia jendearentzat. Aldiz, jendearen bizitzari heltzen badiozu, historia askoz hobeki ulertzen da. Horregatik, beti saiatu naiz historia era errazean azaltzen, jende guztiak uler dezan.

EGUNKARIA.— Historia xumeak, baina beti ilun samarrak, hala ere. Zer interes daukate zuretzat bazterreko gai hauek?

BIDEGAIN.— Historian gai asko daude ukitzeko, sekulan aztertu ez direnak. Niretzat garrantzi handia dauka Erdi Aroan nola bizi eta nola hiltzen ziren jakeak. Horregatik gai horiei heldu diet. Hori da niri interesatzen zaidana.

EGUNKARIA.— Gutxi aztertuta dagoela diozu, baina sorginen inguruan, esate batera, literatura asko izan da, eta jendeak, nola edo hala, horretaz gauza asko aditu du.

BIDEGAIN.— Etnologian asko ikertu da: Caro Baroja, Barandiaran, Satrustegi... Hala ere, ez da sorginei buruz monografikorik egin. Hori da falta zaiena, jende guztiarengana ez baitira heldu. Niri asko gustatzen zaizkit gai hauek, baina batzuetan lan hauek ezin dira irakurri. Kontsultarako liburuak dira, eta ondoren, hortik kronika txikia egin beharra dago.

EGUNKARIA.— Zuk aurretik ezagutuko zenuen sorginen mundua. Ustekaberen bat hartu duzu sakonago aztertzean?

BIDEGAIN.— Ustekabe handia:

sorginik ez dela izan Nafarroan. Sorgintzat hartu zituzten, baina ez ziren, berez, sorginak. Horietariko asko otoitzetan eta 'Jainkoa' hitza ezpainetan zutela hiltzen ziren. Gainera sorginak ez zirela esaten zutenak hiltzen ziren, besteak, sorginak izatea aitortzen zutenak ez baitziren su-tera joaten. Hori niretzako ustekabe galanta izan da. Bestalde, eta hori azpimarratu nahi izan dut liburuan, sorginen historia santuen historia izan da. Nafarroan Joana Ark-eko franko izan ditugu.

EGUNKARIA.— Eta nola azaldu daiteke gai honi buruz izan den literatura guztia, lekuko askoren azalpenak, eta abar...?

BIDEGAIN.— Garbi dago hau guzti izan dela, izan ere, eta prozesuak benetakoak direla. Baina sorginak soilik inkisidore eta Nafarroako Erret Kontseiluaren partaideen buruan zeuden. Hauek aurriritzi frankorekin hiltzen ziren herrietara, heresia izpi oro ezabatzeraz, eta salaketa txiki bat izanez gero, sorgina hor zegoen. Halaber, herriarren go-goetan biztu ziren sorginak, eta edozein atsekabe sortuz gero, ohitura 'arraroak' zituzten beste herritarrei leporatzen zieten segituan. Gainera ni sinetsirik nago, epaiketetan ere agertu baitziren, horietako emakume askok oraingo drogen parekoak hartzen zituztela —belaiki urrilo, erabelar beltza—, eta horrelako egoeratan nahi zutena esaten zuten.


EGUNKARIA.— Orduan, azti eta sasimedikuak ziren batzuetan?

BIDEGAIN.— Batzuk bai, besteak, ezta hori ere. Edozein txorakeriagatik salatzen zituzten.

EGUNKARIA.— Hitoria osoan beti izan dira aztiak eta sasimedikuak. Orduan, zergatik garai hartan —XVI. mende inguruan— izan ziren haien kontrako eraso bortitz hauek?

Nafarroa sorginen gauan' eta 'Heriotza Nafarroan mendeetan zehar' liburuak aurkeztu berri ditu Fernando Bidegain Agos urantziarrak, biak bere liburu guztietan —hamazazpi— nagusi izan diren gaia-

rekin lotuta: Nafarroako historia ezkutua, iluna. Sorginei buruzko liburuan, Nafarroako Gobernuak argitaratuta, XVI. mendean mendialdean ugaritu ziren prozesuen azterketa egiten du egi-leak, eta mito askorekin hautsi.



Sasimediku eta aztiak ziren usteko sorginak, Bidegainen ustetan.

A. BARANDIARAN

BIDEGAIN.— European Trentoko Kontzilioaren garaia zen, kon-

reak garbi esan eta idatzi zuen orduan, Ultzama, Bortzirak eta

Euskaldunen ohiturek, bai eta euskarak berak ere eragina izan zuten mendialdean prozesuak ugaritzean. Inkisidoreentzat dena arrotza zen, deabruaren lana.

trarreforma garaia. Orduan, horren inguruan sortu ziren Luteranismoa, Kalbinismoa, eta abar, eta 'Jaingoikaren ezpatariak', fedearen zaindaria, arduratu ziren horren aldeko joera guztiak baztertzeko, nimenioak izanda ere. Ez ziren fede txarrekoak, baina Jainkoaren alde borrokatzen zuten. Horietariko batek, Salazar y Frias inkisido-

inguruetan egon ondoren: «Ez zen sorginik izan hemen, sorginei buruz hizketan eta idazten hasi zen arte». Horregatik, bada garaia Elizak ere bere errua aitortzeko.

EGUNKARIA.— Bitxia da garai hartako epai guztiak Nafarroako mendialdean egin zirela.

BIDEGAIN.— Mendialdeko basoak, ibarrak, baserriak... denak laguntzen du

giro berezi hori sortzen. Gainera, ohiturak, euskaldunen sinesmen zaharrak, baita euskarak berak ere eragina izan zuen horretan. Inkisidoreendako dena arrotza zen, madarikatua, ez baitzuten ulertzen. Orduan, dena zen deabruaren lana.

EGUNKARIA.— Badaude oraindik inkisidoreak eta sorginak?

BIDEGAIN.— Jakina badaudela, eta betikotz izango dira. Esatea, baina, zaila da. Badaude, lehen bezala, baina ez dira sorginak, lehen ez ziren bezala. Orain dauken aztiak su-tera joango ziren garai hartan, bakar bat zaintzeagatik, baina garaia aldatu dira, eta gaur egun pentsaezina da Elizak horietariko bat hartu eta su-tera eramatea.

NOSKI
JATOR

ZVLDI EROA

